

## **GETXOKO INGURUMENEN TOKIKO FOROAK 2004KO URRIAREN 20AN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

LEHENDAKARIORDEA

FERNANDO BURZAKO JN., Ingurumen zinegotzia

INGURUMEN TEKNIKARIA:

JOSU ATEKA JN.

INGURUMEN AHOLKULARIA: (Ingurune)

JULEN REKONDO JN.

BERTARATUTAKOAK:

JOSE ALMEIDA JN. Getxo Enpresa eta Merkataritza.

ARANTZA TORRES CUESTA AND.: Bizkel Elkartea

CARLOS ARANA ERHARDT JN.: Fegevol (Getxoko Erakundeen Federazioa)

IÑAKI GARATE JN. (Ekologistak Martxan)

PATXI DIAZ JN. (Ibilbide ekologikoak)

JON GALLASTEGI JN. (Fadura Institutua)

DIMAS SAÑUDO JN. (XXXX)

CONCHI MIGUELEZ MORAN AND. (Larrañazubi ikastetxeko irakaslea)

Ingurumeneko Tokiko Foroa 2004ko urriaren 20an bildu da, arratsaldeko zazpitan, Algortako Kultur Etxean eta goikoek parte hartu dute.

Lehendakariordeak, legez ezarritako kopurua bazegoela ikusita, bilerari hasiera eman dio. Ondoren, deialdiaren gai-zerrendako puntuak aztertu ditu. Hona hemen gai-zerrenda:

### GAI-ZERRENDA

#### 1- AKTAK ONESTEA

Ingurumeneko Tokiko Foroak 2004ko maiatzaren 20an eta ekainaren 24an egin zituen bileren akta biak onetsi behar dira. Lehenengo akta arazorik gabe onetsi da. Baina bigarren aktari dagokionez Getxo Enpresa eta Merkataritzako ordezkaria den José Almeida jaunak ohar bat egin du; bere esanetan, Ingurumen Arloak 2. ildo estrategikoari buruz (“Udalerriko balio naturalak, biodibertsitatea eta paisaia babestea”) eta horren programa eta ekintzei buruz proposatutako idazketa berrian ez da Gobela ibaia natur interesa duen espazio moduan aipatzen. Patxi Díaz jaunak (Ibilbide ekologikoak) hori azpimarratu eta idazketan Gobela ibaiaz gainera agertzen ez ziren beste alde batzuk ere aipatu ditu. Ingurumen Arloak esan du idazketa orokorra egin dela baina ez dagoela natur intereseko alde guztiak banan-banan aipatzeko inolako arazorik. Ez da besterik esan.

2. IEren gainean proposatutako idazketa dagoen moduan onetsi da. Orain ekintzen fitxak garatu behar dira; horiek lantzen jarraituko da gero foroari aurkeztu eta baliozkotzeko.

## 2- GETXOKO 2004-2007 IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANAREN BESTE ILDO ESTRATEGIKO BATZUEN GAINEN EZTABAIDA.

Bileran foroko sei kide falta direnez, bertaratutakoek adostu dute eztabaida hori talde txikietan ez egitea eta foroaren osoko bilkurarako uztea.

Eztabaidatzen hasi baino lehen, Patxi Díaz jaunak galdetu du Getxoko Udalak bere eskumenekoak ez diren gai jakin batzuei buruzko salaketak bidera ditzakeen; portuko bokalean sareak eta abar erabiltzeari buruzko kasua aipatu du. Fernando Burzaco ingurumen zinegotziak baietz erantzun dio.

Horren ildotik, Jon Gallastegi jaunak (Fadura Institutua) udaleko ordezkari politikoari galdetu dio hurbileko beste udalekin hitzarmenak sina daitezkeen, Lamiakon dagoen Altos Hornos izeneko urpeko dikea bezalako gaiei heltzeko. Fernando Burzaco zinegotziak oraingoan ere baietz erantzun du; izan ere, Ekintza Planean inguruko beste udal batzuekin lankidetzan aritzea proposatzen da eta horren adibide da, gainera, Barinatxe hondartzako dunen ekosistema Sopelanako Udalarekin batera leheneratu eta kontserbatzeko lankidetzatza.

### “MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA ETA GARRAIO PUBLIKOA BULTZATZEA” IZENEN 4. IE-AREN GAINEN EZTABAIDA

José Almeida jaunak hasi du eztabaida; gai batzuk proposatu ditu eta horien artean azpimarratu du bere erakundea ados dagoela oinezko bideak egitearekin baina ezin dela ahaztu aparkaleku gehiago ere behar dela, bestela jendea ez delako udalerrira etorriko erosketak egitera. LEBERek 1995ean egindako lanaren kasua aipatu du, aldi horretan proposatu baitzen hamar urtetan Getxon 8.000 aparkaleku egin behar zirela. Bestalde, oinezkoentzako guneetan hornitzaileen hornidurak arazoak izaten dituela ere esan du; espaloi gehiago jartzean alde batzuetan zamalanetarako arazoak izaten dira. Getxon oinezkoentzako ibilbide sarea sortzeari buruzko 4.1.3. ekintzari dagokionez, Almeida jaunak esan du badaudela nahiko onargarriak diren batzuk eta alde batzuetan egin daitezkeen arren oraindik ez dira egin. Bizikletentzako erriak egitearen alde dago (4.1.4. ekintza), baina zoritxarrez gutxi erabiltzen dira eta, beraz, udalak horiek sustatu beharko litzatekeela proposatu du. Horri buruz, gainera, esan du aztertu egin beharko litzatekeela establezimendu batzuetara sartzeko traba egiten duten tarte batzuekin, Igeretxe Hotelera sartzeko adibidez. Komertzio eta enpresetan eragozpenik ez sortzeko “Autorik gabeko eguna” astegunetan egin beharrean igandeetan ospatzea proposatu du, baina ez bakarrik igande batean –esan du- iraileko igande guztietan baino (adibidez). Azkenik, “P 4.3. Autoaren erabilera arrazionalizatu eta gutxitzeko programari” buruz esan du norberaren ibilgailua gutxiago erabiltzearekin ados dagoela baina horretarako garraio publikoa bultzatu behar dela eta aparkamendu gomendatuzkoak egin.

Jon Gallastegik esan du autoa gutxiago erabili beharko litzatekeela udalerrian –Getxo ibilgailu kopuru handiena duen Europako udalerrietako bat da, bi ibilgailu baino gehiago du familia bakoitzak- eta erabilera gutxitzeko neurri on bat izan daiteke norberaren ibilgailuarekin hirigunetik ibiltzen direnak kargatu edo zigortzea, Londresen eta Europako beste hiri batzuetan egiten den bezala. Getxotik ibiltzen diren auto guztien ondoriozko trafikoa handia barrukoa dela eta erosotasunak sortu duela esan du. Bere

esanetan, beste kontu bat da ibilgailua lanerako erabiltzea, holakoetan nahitaezkoa eta legezkoa delako norberaren autoa ibili behar izatea.

Dimas Sañudo ados dago oinezko bideak eta bizikletentzako erreiak egitearekin, baina azken honi buruz sarri galdetzen dio bere buruari zertarako egiten diren gutxi erabiltzen dira eta. Autoa beti izan da, lehen behintzat, aurrerapenaren iturria eta orain arazo batzuk sortzen baditu ere hauek konpontzeko modukoak dira; beraz, ezin da autoaren kontra egin, hori oso zaila da. Besteak beste –esan du gero- automobil-industriak lan asko ematen du. Konponbide batzuk eman ditu: saihezbide gehiago egitea, aparkalekuak sortzea eta abar.

Conchi Miguelez Morán andreak (Larrañazubi ikastetxea) esan du ez dagoela autoaren kontra baina badagoela autoa zentzuzko eran erabiltzearen alde. Bizikletentzako erreien eta horiek ondo erabiltzeko kanpainen alde ere badagoela esan du; bere ustez, horiek batu eta bidegorrien sarea osatu beharko litzateke.

Arantza Torres (Bizkel elkarte) ados dago alde batzuetan zutoin metalikoak jartzearekin autoek espaloietan aparka ez dezaten. Bidegorriak egitearekin ere ados dago, baina denak egon behar dira batuta; horri dagokionez esan du “Autorik gabeko egunean” jakin zuela komunikabideen bidez Getxoko udalak zein jarduketa egingo zituen. Inork ez zuen bere elkarte deitu edo ezeren gainean kontsultatu, bere ustez udalak hori kontuan hartu behar du. Gero, bide heziketari buruzko kanpainak garrantzitsuak direla azpimarratu du.

Patxi Díaz jaunak (Ibilbide ekologikoak) esan du alde batera utziko duela “autoa bai edo ez” delakoaren gaineko eztabaida. Aurreko esku-hartzeetan iritzi edo proposamen ezberdinak agertu dira, baina zerbait adostea lor daiteke. Getxoko Udalaren Ekintza Planean proposatutakoan udalerrira oinezkoentzat egitea balioztatuko duen adierazlerik ez dagoela adierazi du eta Ingurumen Arloak erantzun dio hori egia dela baina Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saileko Iraunkortasunerako Tokiko Adierazleetan proposatutakoan badago; orduan, Getxoko adierazleak Eusko Jaurlaritzakoetara egokitu behar dira. Bizikletentzako erreiei dagokienez, eta aurreko esku-hartzeak aipatuz, esan du errei horiek ia-ia hasi berri daudenentzat direla eta ez “abiadura handian” joateko. Autoa gutxiago erabili behar da eta horretarako garraio publikoa bultzatu behar da –eraginkorragoa, erosoagoa eta merkeagoa eginez- eta autoarekin hirigunetik ibiltzen direnak kargatu edo zigortu behar dira. Era berean, geltokietatik hurbil dauden aldeak oinezkoentzat egin behar direla esan du; alde horiek arriskutsuak dira gurasoek umeak ikastetxera eraman behar dituztenean eta mistoak izan beharko lirateke. “Autorik gabeko egunaren” alde dago; izan ere, Europatik ezarrita datorkigu, arazoa da zein jarduera antolatzen diren egun horretarako. Ildo horretan, proposatu du egun horretan gurasoak oinez eraman ditzaketela umeak ikastetxera. Amaitzeko esan du hirigintzaren plangintza dela gakoa, eta Andra Mari auzoa aipatu du horren plangintzak autoa erabili behar izatea dakarrelako.

Fegevol-eko (Getxoko Erakundearen Federazioa) Carlos Arana jaunak esan du “Autorik gabeko eguna” ezer gutxirako balio duela. Bidegorrien erabiltzaileak eta zikloturistak ezberdindu ditu. Autoen ordean udal autobusak erabiltzearen alde dagoela adierazi du. Gero esan du oztopo arkitektoniko batzuk, itsuentzako lauzak esaterako, lagungarriak

izan daitezkeela baina era berean arriskutsuak ere bai, erori zaitezkeelako. Gauzak egin baino lehen ondo aztertu behar dira. Arantza Torres andreak egin bezala, honek ere azpimarratu du bide heziketa behar dela; Córdoba bako adibidea azaldu du, Andaluziako hiri honetako udalak ikastaroak eta hitzaldiak antolatzen dituelako eta horietan istripuak izan dituztenek parte hartzen dutelako euren esperientziak, aholkuak eta gomendioak emanaz.

Iñaki Gárate (Ekologistak Martxan) ados dago esan diren gauza batzuekin baina beste batzuekin ez horrenbeste. Bere elkartearen ustez egun ezinbestekoa da autoaren kontra egitea, gutxienez autoa gehiegi erabiltzearen kontra. Bizikletentzako erreien alde dago baina ez dira zatika egin behar, bidegorrien sare osotua egin behar da. Oraingoa lehenengo fase bat dela esan du. Bere ustez hiri garraio egokia edukitzea oso garrantzitsua da, kontzientziazteko kanpainak egin behar dira eta hirigunetik ibiltzen diren ibilgailu pribatuak neurri jakin batzuen bidez tratatu behar dira dagoeneko beste hiri batzuetan egiten den bezala.

Esku-hartze guztien ostean xehetasunak, zehaztasunak, erantzunak eta beste batzuk egin dira. Alabaina, zaila da horiek guztiak jasotzea.

Julen Rekondo jaunak (Ingurune aholkularitza) esan du esan direnak ikusita adostasunak lor daitezkeela; iritzi edo uste ezberdinenak hirigunetik dabilzan ibilgailuak kargatzeari buruzko gaian ematen dira eta kasu horretan hurrengo bilerarako adostasun-idazlan bat egiten ahalegindu behar da.

21:15etan amaitu da bilera. 2004ko azaroaren 17an egingo da hurrengo bilera eta bertan eztabaidatuko dira gainerako ildo estrategikoak (ura, hondakinak, energia, etab.).

Getxon, 2004ko urriaren 29an.

## **GETXOKO UDALAREN INGURUMEN ARLOAK 4. ILDO ESTRATEGIKORAKO PROPOSATU DUEN IDAZKETA BERRIA**

### **4. IE. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA ETA GARRAIO PUBLIKOA BULTZATZEA**

#### **P 4.1. Oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna hobetu eta bultzatzeko programa**

4.1.1. Oinezkoentzako Ibilbideen Sarea sortzea. Sare honek oinezkoentzako bideen bitartez lotuko ditu udalerriko alde ezberdinak eta ondoko beste udalerrri batzuetakoak.

4.1.2. Lehenetasuna ematea oinezkoari, bizikleten bateragarritasunari eta ibilgailuen trafikoa baretzeko neurriei oinezko gehien dagoen hiriko aldeetan.

4.1.3. Getxoko udalerriko hiri inguruan oinezkoentzako ibilbideen sarea sortzea, seinaleekin eta informazio didaktikoarekin.

4.1.4. Bizikleta-errien sarearen proiektua aurrera eramatea, udal mugartean eta eskualdean, osatu arte. Sare horretan, gainera, instalazio osagarriak eta lehenetasuna duten errei partekatuak egingo dira.

#### **P 4.2. Garraio publikoaren erabilera sustatzeko programa**

4.2.1. Garraioen Partzuergoarekin koordinatuta lan eginez aztertzea udalen arteko eta Getxoko udalerrri barruko garraio publikoa nola hobe daitekeen. Horrez gain, garraio publikoa merkeagoa, eraginkorragoa eta erosoagoa izan behar da.

#### **P 4.3. Herritarrak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko programa, hiritik ibiltzean autoa zentzuz erabiltzeko, erabilera hori murrizteko eta garraio publikoa, bizikleta eta oinezko mugikortasuna sustatzeko.**

4.3.1. Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak eta ikasleentzako bide heziketa kanpainak egitea, mugikortasun iraunkorraren eta hirigunean autoa gutxiago erabiltzearen alde.

4.3.2. Herritarrei zuzendutako dibulgaziozko kanpainak egitea garraio publikoa sustatzeko aldera.

4.3.3. Bizikletaren erabilera bultzatzea, garraiobide erosoak, merkeak eta osasuntsuak izateaz gainera pertsonak eta ingurumena errespetatzen dituelako. Eta gidariak ohitzea arauak errespetatu eta zorrotz betetzera.

4.3.4. Herritarrak oinezko mugikortasuna bultzatu eta erraztearen gainean sentsibilizatzeko kanpainak egitea.

4.3.5. Mugikortasun iraunkorrerako jardueren programa aplikatzen jarraitzea Europako "Hiria nire autoa gabe" izeneko jardunaldia ospatzen denean eta Mugikortasunaren Astean. Horretarako, arazoak ukitzen dituen eta horretaz arduratuta dauden Getxoko udalerriko sektoreek parte hartuko dute.